II.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

III.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

MOZIOAK
INTERPELAZIOAK

ETA

MOCIONES
INTERPELACIONES

E

183.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: LUR AZPIKO IBILBIDEA ANDRÉS CORTINA KALETIK.

Eduardo Andradek ondorengo mozioa irakurri du:

Hainbat erabaki oker hartu ondoren, Getxoko alkateak behin-behinekoa zen arazo bat behin betiko arazo bihurtu zuen: Algortako Andrés Cortina kalearen itxiera.

Lanengatik behin-behineko desbideraketa zena behin betiko bide bihurtu zen eta arazorik ez zegoen lekuan alkateak sortu egin zuen, Algortako Goiko Aldeko auzokideak desbideratzean horretarako aurreikusita ez zeuden kale batzuetatik.

Algortako erdiguneko zirkulazioa

183.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ PASO SUBTERRÁNEO POR ANDRÉS CORTINA.

Eduardo Andrade da lectura a la siguiente moción:

En un cúmulo de decisiones erróneas, el Alcalde de Getxo convirtió en definitivo un problema que era provisional, el cierre de la calle Andrés Cortina de Algorta.

Lo que era un desvío provisional por obras, se convirtió un desvío definitivo y donde no había un problema el Alcalde lo creó, al desviar a miles de vecinos de la zona de Alta de Algorta por unas calles que no estaban previstas para ello.

La circulación del centro de Algorta se

arazo larria bilakatu zen, leku berera iristeko lehen 20 segundo behar baziren, orain lau minutu eta erdi behar dira.

Era berean, gure auzokideei zerbitzua ematen zieten autobus geltoki bi ere kendu egin ziren.

Arazo larri honen aurrean, Javier Giménez de Muerza jaunak, Algortan bizi eta bideetako ingeniaria denak, irtenbide bat bilatu nahian, aztertu zituen zirkulazioak, trafikoen denborak eta zenbait soluzio.

Bere ikerketatik sortu zen gaur pleno honetan aurkeztzen dugun proposamena; bertan planteatzen da Andrés Cortina kalearen zati bat lurperatzea, horrela Antzokiko aparkalekuan sarrera bat egingo litzateke eta irteera moduan jarriko litzateke oraingo sarrerako arrapala.

Horrela, lanak egin aurreko zirkulazioa berreskuratuko litzateke, Algortako Goiko Aldeko auzokideak berriro ibiliko lirateke Andrés Cortina kalean Algortako etorbiderako noranzkoan, trafikoa desbideratu zen kale txikietatik kenduko litzateke ezarri zitzaizen karga, eta, era berean, Algortako arazoei irtenbidea eman nahian eraiki den Bidezabalgo autopista ere libratuko litzateke.

Irekiera honi esker ere Bizkaibusek Andrés Cortina kalean zituen eta galdu ziren geltoki biak errekuperatuko lirateke, horrek Antzokiko aparkalekua martxan jartzea ahalbidetuko luke, sarreran arrapala bakar bat jarritz eta eraikitzean egindako akatsa zuzenduz.

Aldez aurretik egindako ikerketen arabera, ingeniariak egin duen

convirtió en un grave problema, lo que antes eran 20 segundos ahora son cuatro minutos y medio para llegar al mismo punto.

Del mismo modo, se suprimieron dos paradas de autobús que daban servicio a nuestros vecinos.

Ante este grave problema D. Javier Giménez de Muerza, Ingeniero de Caminos residente en Algorta, comenzó a buscar una solución, estudió las circulaciones, los tiempos de los tráfico y las posibles soluciones.

De sus estudios ha surgido la propuesta que hoy presentamos en este pleno, la cual plantea realizar un soterramiento de parte de la calle Andrés Cortina para crear una entrada al aparcamiento del Antzoki y establecer como salida, la actual rampa de entrada.

De esta forma se recuperaría la circulación anterior a las obras por la cual los vecinos de la zona Alta de Algorta volverían a transitar por la calle Andrés Cortina en dirección hacia Avenida de Algorta, liberando las pequeñas calles por las cuales se desvió el tráfico, de la carga que les supuso y liberar Bidezabal de esa autopista que se ha construido para solucionar los problemas de Algorta.

Asimismo esta apertura permitiría recuperar las dos paradas de Bizkaibus que se perdieron en Andrés Cortina y permitiría la puesta en marcha del aparcamiento del Antzoki al solucionar su defecto constructivo de hacerlo con una sola rampa de acceso.

La propuesta es viable técnica y económicamente según los estudios

proposamena egingarria da bai teknikoki bai ekonomikoki, orain falta den bakarra da borondate politikoa martxan jartzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, AKORDIO PROPOSAMEN hau aurkezten diogu Udalaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.- Beharrezkoak diren kudeaketak egin daitezela aurreproiektua egiteko mozio honetan adierazitako pasabidea eraikitzeko.

BIGARRENA.- Mozio honen berri eman dadila Udalaren komunikabideetan.

Enrique Pradak hitza hartu du azalduz 2014. urtean aurkeztutako azterlanaren berri baduela, eta Algortako bizilagunen elkarteak babestu egin zuela. Azterlana errespetatzen dute eta auzokideen proposamen landu eta zorrotzen balioa nabarmendu nahi dute; gobernu taldeari eskaera egin dio horrelako proposamenak baloratu eta sakon aztertzeko. Mozioari dagokionez, udalak proposamena aztertu eta arrazoizko erantzuna ematearekin ados daude, baina ez dute argi ikusten eraikuntza aurreproiektu bat egin behar denik, aldeaz aurretik proposamenari buruzko azterlana egin behar delako; horregatik, abstenitu egingo dira.

Joseba Arregik oharrak azaldu ditu, adieraziz aparkalekuaren proiektua hasieran ez zegoela Getxo Antzokiko proiektuan; Osoko Bilkurak proposatu ondoren gehitu zen, eta horrek esan nahiko luke Andrés Cortina kalea peatonalizatu egin beharko litzatekeela San Nikolas inguruan; erabaki hori Algortan trafikoa berrantolatzeari

previos realizados por el ingeniero autor de la propuesta, ahora sólo falta voluntad política para ponerla en funcionamiento.

Por todo ello presentamos la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO al Pleno Municipal:

PRIMERO.- Que se realicen los trámites necesarios para elaborar un Anteproyecto de construcción del paso indicado en el cuerpo de esta moción

SEGUNDO.- - Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

Enrique Prada interviene manifestando que conoce el estudio que fue presentado el año 2014 y fue avalado por la asociación de vecinos de Algorta. El estudio les merece todos los respetos y quieren poner en valor las propuestas vecinales trabajadas y rigurosas y piden al equipo de gobierno que este tipo de propuestas sean valoradas y estudiadas en profundidad. Respecto a la moción están conforme a que el ayuntamiento estudie la propuesta y den una respuesta razonada pero no ven claro que haya que realizar un anteproyecto constructivo ya que previamente hace falta realizar un estudio sobre la propuesta, razón por la que se abstendrán.

Joseba Arregi matiza las observaciones realizadas indicando que el proyecto de parking no iba al principio en el proyecto del Getxo Antzokia sino que incorporó a propuesta del Pleno y ello suponía necesariamente peatonalizar la calle Andrés cortina en el entorno de San Nikolas, decisión que era previa al acuerdo sobre la reordenación del

buruzko akordioa baino lehenagokoa da, eta horren emaitzak dagoeneko hasi dira antzematen. Mozioak abiapuntutzat duen ikuspegia, hain zuzen ere, udalak 1993an hartutako irizpidearen aurkakoa da; orduan mugikortasun iraunkorra eta peatonalizazioa saritzearen alde egin zen, ibilgailuen gaintetik. Hiri mugikortasun iraunkorraren planaren helburuak gogorarazi ditu; proposamena kontraesankorra da horiekiko. Proposamenak aurrera egin ez gero, oinezkoen irisgarritasuna murriztu egingo litzateke; puntu beltz bat sortuko litzateke, trafikoaren ondorioz zarata handiagoa egongo litzateke eta, horrez gain, gauzatzeak zailtasun tekniko handiak dauzka.

Nerea Gujarrubiak, EH Bilduren izenean, San Nikolasen aparkaleku bat zertarako egin den galdetu du, eta dagoeneko obra hori egin bada erabili egin behar dela uste du. Aparkalekua gaur egun ez da erabili, eta planifikazio okerraren adibide bat da hori. Oinezkoak eta mugikortasun iraunkorra gailentzea defendatu du, eta irizpideekin eta plangintzarekin jokatu behar da eta ez, orain bezala, irizpiderik gabe. HAPOa berrikusteko beharra nabarmendu du berriz ere, plangintza orokorra egiteko. Oraindik ibilgailua izugarri erabiltzen dela aitortu du, eta horri ere irtenbidea eman behar zaio, plangintza baliatuz. Ez dakite PPren proposamena zuzena den, ez daukatelako proposamena aztertu duen txosten teknikorik, baina Getxon mugikortasuna planifikatu behar dela uste dute, eta ez bat-batean esku hartzea; horregatik, azaldutakoa dela medio, abstenitu egingo dira.

Eduardo Andradek uste du EH Bildu abstenitzea pena dela, eta GUKi esan

tráfico en Algorta cuyos frutos ya se empiezan a observar. La moción parte desde un punto de vista justamente contrario al criterio adoptado por el ayuntamiento en 1993, en el que optó por primar a la movilidad sostenible y a la peatonalización sobre los vehículos. Recuerda los objetivos del plan de movilidad urbana sostenible a los que la propuesta contradice. Si se llevara adelante la propuesta se disminuiría la accesibilidad peatonal, se generaría un punto negro, más ruido por tráfico y aparte de eso su ejecución tiene considerable dificultad técnica.

Nerea Gujarrubia, en nombre de EH Bildu, se pregunta para qué se ha hecho un parking en San Nikolas y cree que si se ha realizado ya esa obra hay que darle una utilidad. En parking actualmente no se ha utilizado lo cual es un ejemplo de mala planificación. Defiende la prevalencia del peatón y de la movilidad sostenible y hay que actuar con criterios y planificación y no, como en estas ocasiones, con falta de criterio. Insiste en la necesidad de revisión del PGOU para recoger una planificación general. Reconoce que todavía existe un gran uso del vehículo, a lo que también hay que dar solución desde la planificación. No saben si la propuesta del PP es correcta ya que carecen de informes técnicos que hayan estudiado dicha propuesta pero cree que hay que planificar la movilidad en Getxo y no actuar a salto de mata y por lo expuesto se abstendrán.

Eduardo Andrade cree que es una pena la abstención de EH Bildu y a GUK le

dio ez duela ulertzen proposamena modu positiboan hartzea eta ondoren abstenitzea. Bere ustez, Osoko Bilkurari dagokio proiektuaren balorazio politikoa egitea. Azaldu duenez, gaur egun Getxoko auzokideen elkarteak proiektua babesten du. Getxo Antzokiko parkinga PPK planteatu zuen, baina Getxo Antzokiari zerbitzua emateko helburuarekin; hala ere, gobernu taldeak beste gauza bat egin zuen, auzokideei zerbitzurik ematen ez dien aparkaleku askoz handiagoa sortuz. Planteatutako obrak Getxo Antzokiko aparkalekua erabiltzeko aukera emango luke, eta ez luke eraginik izango San Nikolas plazako erabilera publikoan. Proposamena EAJk erabakitakoaren aurka doa, baina ez udalak erabakitakoaren aurka; izan ere, ez zen inolaz ere ez ohartarazi obraren ondoren zirkulazioan egindako behin-behineko aldaketak behin betiko izango zirenik. Aldaketa horiek ez dute trafikoa murriztu; aitzitik, motelagoa eta konplexuagoa da orain, arrisku handiagoa dauka ezarri diren biraketak direla medio eta trafiko gehiena hartzen duten kale estuengatik. Aurkeztutako proposamenak trafikoa arinduko du Algortan eta ez du San Nikolas plazaren erabilera eraginik izango.

Santiago Sainzek proposamena eskertu du, auzokideen eskaera bati dagokiolako, eta horri balioa ematen dio, baina adierazi du ideala izango litzatekeela proposamena alde aurretik Hirigintza batzordean aurkeztu izana, udal teknikarien iritzia jasotzeko; izan ere, iritzi horiek beharrezkoak dira proposamenaren inguruan adierazpenak egiteko. Hirigintza zinegotziari azaldu dio autoak geratzeko iritsi direla, eta kutsadurari buruz hitz egitean azaldu du badirela martxan dauden zenbait

indica que no entiende que valore positivamente la propuesta para luego abstenerse. Opina que al Pleno le corresponde la valoración política del proyecto. Manifiesta que la asociación de vecinos de Getxo actualmente apoya el proyecto. El parking del Getxo Antzokia se planteó desde el PP pero con la finalidad de que diera servicio al Getxo Antzokia pero el equipo de gobierno hizo otra cosa, creando un parking mucho mayor que no da servicio a los vecinos. La obra que plantean posibilitaría utilizar el parking del Getxo Antzokia y no afectaría al uso público de la plaza San Nikolas. La propuesta sí va en contra de lo adoptado por el PNV pero no por el ayuntamiento ya que en ningún caso se advirtió que tras la obra los cambios provisionales que se hicieron de circulación iban a ser definitivos. Esos cambios no han reducido el tráfico sino que lo han hecho más lento y complejo aumentando la peligrosidad por los giros que se han impuesto y las estrechas calles por las que circula la mayoría del tráfico. La propuesta que presenta aligera el tráfico en Algorta y no interfiere el uso de la plaza de San Nikolas.

Santiago Sainz agradece la propuesta ya que obedece a una demanda vecinal, actividad que pone en valor, pero indica que lo ideal hubiese sido que la propuesta se presentara previamente en la comisión de Urbanismo para conocer la opinión de los técnicos municipales, opinión que estima necesaria para poder pronunciarse sobre la propuesta. Al concejal de Urbanismo le indica que los coches han venido para quedarse y al referirse a la contaminación le manifiesta que hay medidas legislativas en marcha para potenciar el coche

neurri legegile auto elektrikoa indartzeko; hortaz, abstenitu egingo da.

Enrique Pradak azaldu du ulertzen duela eraikuntza aurreproiektu bat egin aurretik proposamenaren analisi teknikoa egin behar dela. Aitortu du Algortan trafiko arazo bat dagoela, eta plangintza faltaren ondorio da. Trafikoari buruzko azterlana 1993koa da, eta 25 urte geroago dagoen hiri mugikortasun iraunkorraren plana baztertu egin du gobernu taldeak; izan ere, Algortan trafikoari buruzko akordio garrantzitsua dokumentu hori aintzat hartu gabe hartu zen. Berriz ere esan du plangintza faltaren arduraduna gobernu taldea dela, eta arazoetarako alternatibak egon behar direla uste du. Mugikortasun iraunkorraren printzipioekin bat datorren arren, gobernu taldeari plangintzarik eza kritikatu dio. Garraio publikoa sustatu eta zirkulazio alternatiba berriak sortu behar direla uste du, eta aztertu egin behar dira, aurkeztutakoa barne. Gobernu taldeak planifikatu edo landutako alternatibarik ez dute ikusten.

Eduardo Andradek azaldu du Algortak ez zuela inolako zirkulazio arazorik harik eta Getxoko alkateak sortu zuen arte eta, dirudienez, ez du konpondu nahi, ez baitu babestuko hobekuntza nabarmena eragingo lukeen proposamena. EAJri proiektua aski azaldu diote eta luzamendutan ibili da; ez du proiektua aztertu nahi eta horregatik aurkeztu dute mozioa, proposamena sakon aztertuko duen aurreproiektua egiteko.

Santiago Sainzek azpimarratu du egokiena proposamena Hirigintza

eléctrico, por lo expuesto se abstendrá.

Enrique Prada indica que sigue entendiendo que previo a elaborar un anteproyecto constructivo debe existir un análisis técnico de la propuesta. Reconoce que en Algorta existe un problema de tráfico y se debe a la falta de planificación. El estudio del tráfico es de 1993 y 25 años después hay un plan de movilidad urbana sostenible desacreditado por el equipo de gobierno ya que adoptó un acuerdo importante sobre el tráfico en Algorta sin tener en cuenta dicho documento. Insiste en que el equipo de gobierno es el responsable de la falta de planificación y cree que tiene que haber alternativas para los problemas. Comparte los principios de la movilidad sostenible pero critica al equipo de gobierno la falta de planificación. Cree que hay que potenciar el transporte público y generar nuevas alternativas circulatorias que deban estudiarse como incluso puede ser la presentada. No ven alternativas planificadas ni trabajadas por parte del equipo de gobierno.

Eduardo Andrade indica que Algorta no tenía ningún problema de circulación hasta que el Alcalde de Getxo lo generó y que, al parecer, no quiere resolver ya que no apoya la propuesta que supondría una mejora evidente. Al PNV le han explicado suficientemente el proyecto y ha dado largas y no está por estudiar el mismo, por eso han presentado la moción para que se realice un anteproyecto donde se analice la propuesta en profundidad.

Santiago Sainz insiste en que lo correcto hubiera sido haber llevado la propuesta

Batzordera eraman izana izango litzatekeela, eta aitortu du gobernu taldeak ez duela bere borondatez eramango; hortaz, PPk informazio batzordetik proposatu beharko lukeela uste du, udal irizpide teknikoen berri izateko. Gogorarazi die mozioa onartu arren, gobernu taldea ez dagoela egitera behartuta; horrek informazio batzordean aurkeztu behar izateari buruzko irizpidea indartzen du.

Mozioa bozkatu ostean, ezetsi egin da aldeko 4 boto (PP), aurkako 11 (EAJ, PSE-EE) eta 8 abstentzio jaso ostean (GUK, EH Bildu, Ciudadanos).

184.- GUK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: BALIO ERREPUBLIKARREKIKO ETA DEMOKRAZIAREKIKO KONPROMISOA.

Susana Andollok ondorengo mozioa irakurri du:

Azken urte eta hilabete hauetan, hainbat albiste jaso ditugu monarkiaren inguruko eskandaluen, ustelkerien eta monarkiari estatuko buruzagitza moduan dagokion zeregin instituzionala gaizki betetzearen inguruan. Urdangarinen eta Elena infantaren kasuak, Botswanako ehiza saioenak, Errege Etxearen buruzagi ohiaren jardunarenak edo Corinnaren grabaketa deritzenenak krisi larria eragin du erakunde horretan. Zentzu horretan, herritarrak geroz eta aldenduago daudela adierazten ari dira, eta eskatzen ari dira erakunde horretako kideek beste edozein herritarren bera izan dezaten, ez gehiago ez gutxiago. Bereziki justiziaren aurrean daudenean.

a la comisión de Urbanismo y reconoce que el equipo de gobierno no lo va a llevar de motu propio por lo que cree que el PP debería haberlo planteado desde la comisión informativa para poder conocer los criterios técnicos municipales. Les recuerda que aunque se apruebe la moción el equipo de gobierno no está obligado a hacerlo, lo que favorece su criterio de haberlo presentado en la comisión informativa.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, PP; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE; 8 abstenciones, GUK, EH Bildu, Ciudadanos.

184.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK S/COMPROMISO CON LOS VALORES REPUBLICANOS Y LA DEMOCRACIA.

Susana Andollo da lectura a la siguiente moción:

En los últimos años y meses han sido múltiples las noticias sobre escándalos, corruptelas y malos ejercicios del papel institucional que corresponde a la monarquía como Jefatura del Estado. Casos como el de Urdangarín y la Infanta Elena, las cacerías en Botswana, la actuación del exjefe de la Casa Real o las conocidas como grabaciones de Corinna han generado una grave crisis en la institución. En este sentido, la ciudadanía está manifestando un creciente desapego y exige que gocen de la misma protección, ni más ni menos, que cualquier ciudadano o ciudadana. Especialmente, cuando se trata de rendir cuentas ante la justicia.

Gainera, Zigor Kodeak babes handiagoa ematen dio Errege Etxeari Estatuko beste edozein erakunderi edo herritarri baino, Koroaren aurkako irainen delituaren bidez. Europako justiziak hainbat bider jarri du zalantzan alderdi hori, haren iritziz, ordenamendu juridikoek ezin baitiote babes berezirik eta kualifikaturik eman beren kargu eta erakunde garrantzitsuenei. Are gehiago, kontrakoa beharko luke: kritika maila handia onartu behar dute, demokrazia batean, herritarren iritziaren eta behaketaren mende dauden erakunde publikoak direlako.

Antzeko iritzia eman zuen Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) 2018ko martxoan. Epai bat eman zuen, azaltzen zuena Auzitegi Nazionalak eta Konstituzio Auzitegiak Giza Eskubideen 10. artikulua urratu zutela, monarkiaren aurkako kritika zilegi baten adierazpen sinboliko bat zigortu zutenean. GEEAren iritzi hori berretsi egiten du Europako Batzordeak eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak. Haien ustez, adierazpen askatasuna da "gizarte libre eta demokratikoen giltzarria"; gainera, 2011n gai horren inguruan egin zuten adierazpen batean, azaldu zuten "Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenak "garrantzi handia" ematen diola "gizarte demokratiko bateko eztabaida politikoan esparru publiko eta politikoko figuren inguruan inibiziorik gabe iritzia ematea". Hori dela eta, Nazio Batuek honako hau diote, hitzez hitz: "figura publiko guztiak, garrantzi handiena duten kargu politikoak betetzen dituztenak barne, estatuburuak edo gobernuburuak kasu, kritika zilegien

En paralelo, el Código Penal ofrece más protección a la Casa Real que a cualquier otra institución o ciudadano/a del Estado, a través del delito de injurias a la Corona (artículo 491). Aspecto que ha sido cuestionado varias veces por la justicia europea que considera que los ordenamientos jurídicos no pueden otorgar una protección especial y cualificada a sus cargos e instituciones más importantes. Más bien al contrario, deben permitir un amplio grado de crítica por tratarse de instituciones públicas sujetas al cuestionamiento y escrutinio ciudadano en el marco de una democracia.

En similares términos se expresó el Tribunal Europeo de Derechos Humanos (TEDH) en marzo de 2018 cuando dictó una sentencia en la que consideraba que la Audiencia Nacional y el Tribunal Constitucional vulneraron el artículo 10 de la convención de Derechos Humanos sancionando una expresión simbólica de crítica legítima a la monarquía. Esta postura del TEDH se ve reafirmada por el Consejo de Europa y por el Comité de Derechos Humanos de Naciones Unidas, para quien la libertad de expresión es "la piedra angular de todas las sociedades libres y democráticas" añadiendo, además -en una Observación específica sobre este tema en 2011- la "gran importancia" que otorga el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos a "la expresión sin inhibiciones en el debate público sobre figuras del ámbito público y político en una sociedad democrática". Es por ello, dicen literalmente desde Naciones Unidas, que "todas las figuras públicas, incluso las que ejercen los cargos políticos de mayor importancia, como los Jefes de Estado o de Gobierno,

eta oposizio politikoaren xede izan daitezke":

Horrez gain, eztabaida sortu dute estatuko buruzagitzaren beraren funtzioek. Erakundeen, gizartearen eta lurraldearen krisi larri honetan, erakunde horretatik espero zitekeen gutxiena litzateke ezberdinen arteko elkar ulertzeari ekarpenen bat egitea, eta gatazka horiek larrituko dituen adierazpenik ez egitea.

Horregatik guztiagatik, ekimen honen funtsezko helburua da eztabaida politiko bat irekitzea, modu eraikitzeaz, estatuko buruzagitzak egun dituen arazo objektiboen eta horien inguruan euskal gizarteak duen sentimenduaren adierazpen modura.

Ondorioz, ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkeztu nahi dugu, osoko bilkuran eztabaidatzeko:

1. Getxoko Udalak adierazten du gizarte demokratiko batean herritarrak ordezkatzeko dituen kargu publiko oro hautatu egin behar dela, eta aldizka berritu behar dela hauteskondeen bitartez. Printzipio eta balio hori estatuako buruzagitzara hedatu behar du, errepublika eredu baterantz jota.

2. Getxoko Udalak bere kezka azaldu du Errege Etxearen inguruko eskandaluengatik eta salaketengatik, eta eskatu du botere judizialak osorik ikertu ditzan. Horrez gain, beste edozein kargu publikorekin bezala, kontuak eman beharko lituzke eta botere legegileak fiskalizatu beharko luke: Diputatuen Kongresuak, kasu honetan.

pueden ser objeto legítimo de críticas y oposición política".

Asimismo, ha sido objeto de controversia el propio desempeño de las funciones de Jefatura del Estado. Y es que en momentos de grave crisis institucional, social y territorial lo mínimo que se podría esperar de esta institución es que haga una aportación al entendimiento entre diferentes y que se abstuviera de hacer pronunciamientos de parte que agraven esos conflictos.

Por todo ello, el fin que inspira esta iniciativa es abrir de forma constructiva un debate político que sea la expresión de los problemas objetivos de la actual jefatura del estado y del sentir de la ciudadanía vasca al respecto.

Por todo ello se formula para su debate en Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1. El Ayuntamiento de Getxo manifiesta que en una sociedad democrática todo cargo público de representación de la ciudadanía debe ser elegido y renovado periódicamente a través de elecciones. Este principio y valor debe hacerse extensivo a la Jefatura del Estado avanzando hacia un modelo republicano.

2. El Ayuntamiento de Getxo manifiesta su preocupación por los diferentes escándalos y denuncias de corrupción que afectan a la Casa Real y exige que puedan ser investigadas completamente por el poder judicial. Asimismo, como cualquier cargo público, debería rendir cuentas y ser fiscalizado por el poder legislativo, en este caso, el Congreso de los Diputados.

3. Getxoko Udalak azaltzen du Errege Etxearen ohorerako eskubideak beste edozein herritarrenaren babes bera izan behar duela. Zentzu horretan, Diputatuen Kongresuari eskatzen dio Zigor Kodea aldatu dezan (490.3 eta 491. artikulua) eta Giza Eskubideen Adierazpenak xedatutakoari jarraitzeko (10. artikulua), GEEAk azaldu zuen moduan.

4. Getxoko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio soziometro espezifiko bat egin dezan euskal gizarteak Errege Etxearen inguruan duen pertzepzioaren eta Estatuko buruzagitzaren inguruko iritzi politikoaren inguruan.

5. Getxoko Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio erreferendum baterako deialdia egin dezan, Konstituzioari jarraituz, herritarrek monarkiaren eta errepublikaren artean erabaki ahal izateko.

6. Getxoko Udaltzak erabaki hau helaraziko die Diputatuen Kongresuko parlamentu talde guztiei eta hedabideei.

José Luis Landa jaunak zuzenketa transakzional bat aurkeztu eta irakurri du:

“1. Getxoko Udalaren aburuz, Konstituzioa aldatzeari buruzko eztabaida ireki behar da, talde politiko guztien ekarpenak jasoz, eta, are gehiago, onartu zenetik 40 urte bete direnean; Espainiako demokrazia eta aurrerapena lortzeko arrakasta izugarria izan da, baita askatasunak hedatzeko ere.

3. El Ayuntamiento de Getxo manifiesta que el derecho al honor de la Casa Real debe gozar de la misma protección que el de cualquier otro ciudadano o ciudadana. En este sentido, insta al Congreso de los Diputados a reformar el Código Penal (arts. 490.3 y 491) ajustándose a lo establecido por la Convención de los Derechos Humanos (art. 10), tal y como puso de manifiesto el TEDH.

4. El Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a realizar un sociómetro específico sobre la percepción de la ciudadanía vasca de la casa real y sus preferencias políticas sobre la jefatura del estado.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno del Estado a convocar un referéndum de acuerdo a la Constitución para que los ciudadanos y las ciudadanas podamos decidir entre Monarquía y República.

6. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo comunicará este acuerdo a todos los Grupos Parlamentarios del Congreso de los Diputados y a los medios de comunicación.

José Luis Landa presenta una enmienda transaccional de sustitución a la que da lectura:

“1. El Ayuntamiento de Getxo considera necesario abrir un debate sobre la reforma de la Carta Magna que cuente con las aportaciones de todos los grupos políticos, y más aún cuando se cumplen 40 años desde su aprobación, que ha supuesto un indudable éxito para el progreso y la democracia de España, así como para la extensión de libertades.

2. *Getxoko Udalak Gorte Nagusiei eskaera egiten die edozein erreforma konstituzional egin artean, Koroaren aurkako irainen sentimendu erlijiosoak aipatzen dituzten Zigor Kodeko artikulak aldatzeko, horrelako eztabaidak zigor bidetik jazarriak izateko arriskua ahal bezainbeste murrizte aldera.*

3. *Getxoko Udalak botere publiko orori eskatzen dio diru publikoaren erabileraren inguruan kontuak eman eta gardentasunari lotutako politiketan aurrera egiteko. Halaber, Getxoko Udalak erakunde guztiei eta herritarrei eskatzen die diru publikoa iruzurrez erabili bada Fiskaltzari jakinaraz diezaioten."*

Enrique Olasok azaldu du proposamenak zenbait alderdi positibo dituela, baina mozioaren zenbait gai baztertu dituenaz, ez dutela onartuko.

Ibon Rodríguezek, EH Bilduren izenean, zuzenketa transakzional gehigarri bat aurkeztu eta irakurri du:

"Euskal Herriak ez zuen onartu 1978ko Konstituzio espainiarra, zeinaren ondorioz Juan Carlos Borboikoa Estatu Buru gisa izendatua izan zen. Euskal Herriak uko egin zion frankismotik eratorritako eredu politiko-instituzionala "lotuta eta ondo lotuta" uzten zuen konstituzio horri. Eta uko egin genion, besteak beste, herri gisa etorkizuna libreki eraikitze eskubidea ukatzen zigor eta benetako haustura demokratikorik ez emateaz gain, Hego Euskal Herria bi eremu administratibotan zatitzen zuelako.

Eredu politiko hau, ordea, ez da gai izan

2. *El Ayuntamiento de Getxo insta a las Cortes Generales a que en tanto se produce cualquier reforma constitucional, se modifiquen los artículos del Código Penal que hacen alusión a los sentimientos religiosos de injurias a la Corona, con el fin de restringir al máximo la posibilidad de que estas discusiones puedan ser perseguibles en vía penal.*

3. *EL Ayuntamiento de Getxo insta a todos los poderes públicos a avanzar en las políticas de transparencia y rendición de cuentas sobre el uso del dinero público. Asimismo el Ayuntamiento de Getxo insta a todas las instituciones y a la ciudadanía a que pongan en conocimiento de la Fiscalía cualquier uso fraudulento de dinero público."*

Enrique Olaso indica que la propuesta tiene aspectos positivos pero al obviar algunas cuestiones de la moción presentada no la van a asumir.

Ibon Rodríguez, en nombre de EH Bildu, presenta una enmienda transaccional de adición a la que da lectura:

"Euskal Herria no aceptó la Constitución española de 1978 por la que Juan Carlos de Borbón fue ratificado como Jefe de Estado. Euskal Herria rechazó una constitución que pretendía mantener vigente el modelo político-institucional sobrevenido del franquismo, manteniendo sus fundamentos "atados y bien atados". Y la rechazamos, entre otras cosas, porque además de negarnos el derecho a decidir nuestro futuro libremente como pueblo y no darse una fractura real con el anterior régimen antidemocrático, dividía Hego Euskal Herria en dos entidades administrativas diferenciadas.

espainiar estatuaren menpeko herrien zein Estatuko herritarren aldarrikapen demokratikoak geldiarazteko. Gero eta nabarmenagoak eta indartsuagoak dira, estatu espainiarreko nazioek beraien etorkizunaren jabe izateko egindako aldarrikapenak eta Felipe VI erregearen posizioa agerikoa bezain onartezina izan da, Kataluniako aferan izandako interbentzioa besteak beste.

EH Bilduk GUK alderdiak egin duen mozioari puntu hau gehitzea proposatzen du Udalbatzak onar dezan:

-Getxoko udalbatzak euskal errepublikaren baloreen aldeko konpromisoa berretsi eta monarkia bezalako erakunde zaharkitu eta antidemokratiko baten abolizioaren alde egiten du."

Enrique Olasok, GUKen izenean, zuzenketa transakzionala onartzen dutela azaldu du.

Koldo Iturbek hartu du hitza eta azaldu du proposamena Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zela, eta Osoko Bilkura honetan aurkeztutako zuzenketak bat datozela Eusko Legebiltzarrean aurkeztutakoekin; oraindik ganbera horretan ez denez eztabaidatu, bere ustez zuzenena izango litzateke mozioa baztertzea eta eztabaida Eusko Legebiltzarrean izan ondoren, eta onartutakoari erreparatuz, jarduketak planteatu daitezke udalean.

Enrique Olasok azaldu du Getxoko Udalean dauden ordezkari politiko batzuk ez direla Eusko Legebiltzarrean existitzen, eta eztabaidak, gainera, behetik gorantz ere planteatu ahal direla.

Koldo Iturbek ordezeko zuzenketa

Este modelo político, sin embargo, no ha sido capaz de detener las reivindicaciones democráticas realizadas desde la ciudadanía del estado y los diferentes pueblos que actualmente se encuentran sometidos por el estado español. Las reivindicaciones de las naciones para hacernos cargo de nuestro futuro como pueblo son cada vez más notorias y, ante esto, como se ha podido comprobar en Catalunya, la posición mantenida por Felipe VI. ha sido tan clara como inaceptable.

EH Bildu propone añadir este punto a la moción presentada por GUK, para que el Pleno lo acepte:

- El Pleno de Getxo reafirma el compromiso a favor de los valores de la república vasca y aboga por la abolición de una institución tan antidemocrática y obsoleta como es la monarquía.

Enrique Olaso, en nombre de GUK, manifiesta que admiten la enmienda transaccional.

Koldo Iturbe interviene para indicar que esta propuesta se presentó en el Parlamento vasco y las enmiendas presentadas en este pleno coinciden con las presentadas en el Parlamento Vasco, como aún no se ha debatido en dicha cámara estima que lo correcto sería que se retirara la moción y una vez que se produzca el debate en el Parlamento Vasco y en atención a lo que resulte aprobado se podrían plantear las actuaciones en el ayuntamiento.

Enrique Olaso indica que en el Ayuntamiento de Getxo existen representaciones políticas que no existen en el Parlamento Vasco y que también los debates se pueden plantear de abajo hacia arriba.

Koldo Iturbe presenta una enmienda

transakzional bat aurkeztu du, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu den zuzenketa bera, eta irakurri egin du:

"1.- Espainiako estatuan sistema monarkikoa ezartzea legez jasota dago 1978ko Konstituzioan. Berretsitako testuak Euskadiko hautesleen %30en baietza baino ez zuen jaso.

Konstituzio hura onartu zenetik 40 urte igaro direla, Euskadin are handiagoa da gaur egungo eredu konstituzionalarekiko konplizitate eta integrazio falta. Gure hiritargoaren zati handi bat ez da sekula akordio haren parte sentitu, eta hala berretsi du aukera izan duen guztietan.

2.- XXI. mendean, logikoa da gizartearen ordezkari gorenaren nor izango den erabakitzeke orduan hiritarren artean eginiko aukeraketa sistema bidez egitea eta, beraz, hiritarrek eurek aldikiz erabakitzea haien ordezkaria nor izango den. Instantzia horrek beste edozein hiritarrek daukan babes berbera izango du eta, herri kargudun gisa, kontu eman beharko du, Botere legegileak fiskalizatua beharko du izan eta bere jarduna indarrean dauden gardentasun arauak arautu beharko dute .

3.- Monarkia da, gaur egun, erabateko anakronismo historiko eta demokratikoa eta, Euskadiren kasuan, zentzurik aurkitzekotan, bakarrik ulertuko genuke Estatuaren eta Euskadiren erabateko autogobernuaren arteko lotune gisa, Estatutuak eta Konstituzioak babesten dituzten eskubide historikoen arabera eta foru erregimena errespetatuz."

Enrique Olaso ekarpena eskertu du, baina zuzenketa bere mozioa ordezkatzeko planteatzen duenez, ez dute onartuko.

Eduardo Andradek hartu du hitza eta

transaccional de sustitución, que es idéntica a la presentada en el Parlamento Vasco, a la que da lectura:

"1.- La determinación del sistema monárquico en el Estado español fue plasmada legalmente en la Constitución de 1978, Constitución en la que apenas el 30% del censo electoral vasco dio el "sí" al texto refrendado.

Pasados ya 40 años de aquello, la falta de complicidad e integración en el modelo constitucional existente en Euskadi es aún mayor. Una parte importante de nuestra ciudadanía nunca se ha sentido parte de aquel acuerdo, y así lo ha reiterado en cuantas ocasiones ha habido oportunidad.

2.- En el siglo XXI, resulta lógico que la formulación de la más alta instancia representativa del conjunto de la sociedad se realice a través de un sistema en que los ciudadanos y ciudadanas elijan periódicamente a quiénes van a ostentar su representación. Dicha instancia gozará de la misma protección que el de cualquier otro ciudadano o ciudadana y como cargo público, deberá rendir cuentas y ser fiscalizado por el Poder Legislativo siendo su gestión regulada por las normas vigentes de transparencia.

3.-La monarquía es hoy por hoy un anacronismo histórico y democrático, y en el caso del Pueblo Vasco, una institución a la que solo encontraríamos sentido si cumpliera una función de conexión entre el Estado y el autogobierno pleno de Euskadi de acuerdo con los derechos históricos amparados en el Estatuto y la Constitución y desde el respeto al régimen foral."

Enrique Olaso agradece la aportación pero al ser una enmienda que plantea la sustitución de su moción no la admiten.

esan du Algortako zirkulazioaz hitz egin ondoren harrigarria dela gai honek udal taldeen artean parte hartze handiagoa eragitea Algortako trafiko arazoek baino. Bere ustez, monarkia edo errepublikari buruzko eztabaida ez da Getxoko herritarrak kezkatzen duen zerbait; gainera ez da udalaren eskumena, ezta urrunetik ere. Kasu honetan, GUKen proposamena Podemos taldearena da, dirudienez udal taldean boterea eskuratu baitu. Bere ustez, aipatutako adibideei begiratuz gero, mozioa zaharkitua da. Bere ustez, monarkiaren balorazio eta onarpen maila oso altua da, eta bukatzeko esan duenez, errepublika baino monarkia tinko babesten dutenez, mozioaren aurka bozkatuko dute.

José Luis Landak azaldu du aurkeztutako zuzenketa ez dela onartu baina, hala ere, GUKen mozioaren testuari hasieran bezala eutsiz gero, mozioa onartuko luketela, haien ustez PSE-EE alderdi errepublikanoa delako, alderdiko zuzendaritzatik kritikaren bat jaso arren, baina EH Bilduren zuzenketa gehitzearen ondorioz aurka bozkatuko dute.

Ibon Rodríguezek PPri erantzun dio esanez gai garrantzitsua ez izateko monarkiaren aldeko defentsa sutsua egin duela. EH Bilduk ez du monarkiarik babesten erakunde zaharkitua eta antidemokratikoa delako; monarkek herria zapaldu izan dute beti, eta lapurtu egiten dute, baina ez soilik antzinako garaietan, Espainian horrela jarraitzen duelako, adieraziz errege emeritua diktadore batek izendatu zuela, eta Borboien aurreko

Eduardo Andrade interviene para manifestar que después de estar hablando de la circulación de Algorta resulta sorprendente que este tema genere más participación en los grupos municipales que la problemática del tráfico en Algorta. Cree que el debate sobre la monarquía o república no preocupa a la ciudadanía de Getxo, además de que no es ni de lejos competencia del ayuntamiento. En este caso la propuesta de GUK es la de Podemos que al parecer ha tomado el poder en el grupo municipal. Cree que la moción está trasnochada si se observan los ejemplos que cita. Opina que el nivel de aceptación y valoración de la monarquía es muy alto y finaliza manifestando que, como firmes defensores de la monarquía frente a la república votarán en contra de la moción.

José Luis Landa manifiesta que han presentado una enmienda que no ha sido admitida pero, pese a ello, si se mantenía el texto de la moción de GUK en los términos originales hubieran aprobado la moción porque estiman que el PSE-EE es un partido republicano, aunque les hubiera costado alguna crítica de la dirección de su partido, pero que al haber incorporado la enmienda de EH Bildu votarán en contra.

Ibon Rodríguez replica al PP manifestando que para no ser un tema importante ha hecho una defensa ferviente de la monarquía. EH Bildu no apoya ninguna monarquía por ser una institución anticuada y antidemocrática, los monarcas siempre han oprimido al pueblo y han robado, pero no solo en épocas antiguas ya que en España se sigue así, indicando que el rey emérito fue nombrado por un

kate guztiak lotura zuen gerrarekin, dinastia horrek gerra eta gero lortu baitzuen koroa. Errepublikaren alde dago eta, horrenbestez, ez du erregerik nahi, ez espainiarrik, ez euskaldunik; erregeak egiten duenaren inguruan azalpenak eman behar ez izatearekin ere ez dator bat. Espainiako errepublikarekiko elkartasuna azaldu du, baina euskal errepublika aldarrikatu du.

Teresa Escalantek esan du GUKen irizpide falta deigarria iruditzen zaiola, errepublikari buruzko mozio batean erabakitzeko eskubidea gehitzen amaitu baitu. PSE-EEk mozioaren hasierako filosofia babesten du, estatu laiko eta errepublikarra ondare sozialistaren parte baitira. Bere alderdia alderdi konstituzionalista dela azaldu du, eta Konstituzioak berrogei urte betetzen dituen honetan egokitu egin behar dela uste duela. Koroaren aurkako irautan delituak ezabatzeke proposamenari dagokionez, gogorarazi dio Diputatuen Kongresuan horri buruzko ekimen sozialista bat izapidetzen ari direla. EH Bilduren zuzenketa onartzean ez du mozioa babesteko; hala ere, onartu du lurralde arazoa konpondu beharreko auzia dela. EH Bilduren ekarpen horrekin badute mozioa ez babesteko justifikazioa, eta ekarpen hori ez balitz gehituko onartu egingo lukete, alderdi barruan arazoren bat sortu arren. Geroago aldi baterako bilkura aretorik atera da.

Santiago Sainzek esan du adierazpen askatasunerako eskubidea ez dela eskubide mugagabea, eta Espainiako monarkia babestea beste zigor kode batzuetan existitzen den arlora eraman daiteke, esaterako estatu buruak babestea; Europako zigor kodeen inguruko hainbat datu eman ditu,

dictador y toda la cadena anterior de los Borbones estaban vinculados a la guerra ya que de hecho esa dinastía accedió a la corona después de una guerra. Está a favor de la república y por lo tanto no quieren reyes ni españoles ni vascos y tampoco comparten que el rey no tenga que dar cuenta de sus actos. Manifiesta su solidaridad con la república española aunque reivindica una república vasca.

Teresa Escalante indica que le llama la atención la falta de criterio de GUK que una moción sobre la república acabe incorporando un derecho a decidir. El PSE-EE apoya la filosofía originaria de la moción ya que forma parte del acervo socialista el estado laico y republicano. Manifiesta que su partido es un partido constitucionalista y cree que tras cuarenta años de Constitución hay que adaptar la misma. Respecto a la propuesta de suprimir el delito de injurias a la corona les recuerda que hay una iniciativa socialista en trámite en el Congreso de los Diputados. Al haber admitido la enmienda de EH Bildu no apoyará la moción, sin perjuicio de asumir que el problema territorial es algo a resolver. Con esa aportación de EH Bildu tienen justificación para no dar el apoyo a la moción que de no haberse asumido esa aportación la hubieran apoyado pese a que les hubiera generado algún problema en su partido. Posteriormente sale temporalmente del salón de plenos.

Santiago Sainz indica que el derecho a la libertad de expresión no es un derecho ilimitado y la protección de la monarquía en España es trasladable a lo que existe en otros códigos penales como protección a los jefes de estado, dando datos de diferentes códigos

